

BILBOKO UDALTZAINGOAK HIRU PERTSONA ATXILOTU DITU ZABALBIDE INGURUAN, DROGEN AURKAKO OPERAZIO BATEAN

- **Bilboko Udaleko Drogen aurkako Ikuskaritzak hiru gazte –gizonezko bat eta emakumezko bi- atxilotu zituen astearen hasieran, osasun publikoaren aurkako delitu bat egotzita.**
- **Operazioan udaltzainek 300 gr ketamina eta 80 gr kokaina konfiskatu zuten, baita atxilotu nagusiak bezeroei droga entregatzeko erabiltzen zuen autoa ere.**

(Bilbon, 2017ko martxoaren 25ean). Bilboko Udaltzaingoak joan zen astelehenean hiru pertsona atxilotu zituen, Zabalbide inguruan drogen trafikoaren aurka egindako operazio batean. 25 urteko gizonezko bat eta 25 eta 30 urteko emakume bi dira atxilotutakoak; euretako batek ere ez zuen aurrekari penalik.

Zenbait astetako ikerketa-lanaren ondoren, Drogaren aurkako Ikuskaritzako agenteek arratsaldearen azken orduan gizona atxilotu zuten, beste bati droga-entrega bat egin ziola ziurtatu eta gero. Kokaina kopuru txikia eta zerabilen autoa konfiskatu zizkioten.

Aurrerago, agenteek gizonezkoaren bikotea eta honen lagun bat atxilotu eta horrekin operazioa amaitutzat eman zuten. Atxilotu zituztenean kutxa gotor txiki bat zerematen, 300 gr ketamina eta 80 gr kokainarekin, baita droga manipulatzeko eta banatzeko tresna batzuk ere.

Hiru gazteak epailearen esku utzi zituzten astearen erdi aldera.

POLICÍA MUNICIPAL DE BILBAO DETIENE A TRES PERSONAS EN EL TRANCURSO DE UNA OPERACIÓN ANTIDROGA EN LAS INMEDIACIONES DE ZABALBIDE

- **La Inspección Antidroga de la Policía Municipal de Bilbao detuvo a principios de semana a tres jóvenes – un varón y dos mujeres-, acusados de cometer un delito contra la salud pública.**
- **Durante la operación, los agentes se incautaron de 300 gr. de ketamina y de 80 gr. de cocaína; además de decomisar un coche, en el que el principal detenido se desplazaba para entregar la droga a sus clientes.**

(Bilbao, a 25 de marzo de 2017). Policía Municipal de Bilbao detuvo el pasado lunes a tres personas en el transcurso de una nueva operación antidroga en la zona de Zabalbide. Se trata de un hombre de 25 años de edad y de dos mujeres de 25 y 20 años, respectivamente, ninguno de los cuales contaba con antecedentes penales.

Tras varias semanas de investigación, agentes de la Inspección Antidroga interceptaron a última hora de la tarde al varón tras comprobar cómo este realizaba una entrega de droga a un tercero, ocupándole en el coche en el que viajaba una pequeña cantidad de cocaína.

Más adelante, la operación concluía con la detención de su pareja sentimental y de una amiga de ésta, quienes fueron detenidas portando una caja fuerte portátil en la que trasladaban 300 gr. de ketamina y cerca de 80 gr. de cocaína, así como diversos útiles empleados para la manipulación y distribución de las drogas.

Los tres jóvenes fueron puestos a disposición judicial a mediados de semana.